



Nafarroa Arenako finala, goraldiaren ispilu

Azaroaren 29an izango da Nafarroako Bertsolari Txapelketako finala, lehendabizikoz, Nafarroa Arenan, 17:00etan hasita. Zortzi buru eta txapel bat, Zaldiko Maldiko elkartek emango duena.

24 bertsolarik ekin zioten txapelketako bideari irailean eta zortzi heldu dira finalera: Ekhiñe Zapiain Arlegi, Eki Mateorena Zozaia, Eneko Lazkoz Martinez, Joanes Illarregi Marzol, Julio Soto Ezkurdia, Saioa Alkaiza Guallar, Sarai Robles Vitas eta Xabat Illarregi Marzol. Zortziko honek argazki berri bat dakar, nola belaunaldiartekotasunean, hala generoari dagokionean. Besteak beste Zapiainek eta Mateorenak lehen aldiz kantatuko dute finalean.

Ainhua Larretxea Agirre eta Ander Aranburu Arriola izango dira aurkezpen eta gai-emaile lanetan ariko direnak eta, epaileak, berriz, Amaia Telletxea, Cesar Etxeberria, Jon Diaz de Mendibil, Joseba Beltza, Mikel Beaumont, Nerea Bruño eta Patxi Barberena. Idazkari lanetan Ainhua Goñi eta Nerea Goñi ariko dira.

Azaroaren 21ean egin zen finalaren aurkezpena Nafarroa Arenan bertan. Nerea Bruño Nafarroako Bertsozale Elkarteko lehendakariak adierazi zuenez, ederra joan da txapelketa: "Bidea emankorra izan da, eta berretsita geratu da Nafarroako bertsolaritza une gozoan dagoela: bai bertsogintza aldetik, baita zaletu aldetik ere". Goraldi horrek eman du apustu egiteko indarra, eta horregatik Nafarroa Arenan izango da finala lehen aldiz; "urrats kuantitatibo eta kualitatibo" gisa definitu zuen Bruñok.

Saioa Onea txapelketaren arduradunak "inoizko finalik jendetsuena" espero dutela gaineratu zuen, "orain arte bildutako bertsozale kopuruak eta sortutako giroak horrela pentsatzeko heldulekuak" ematen baititu.

Zaldiko Maldiko elkartea, txapel emaile

Nafarroako Bertsozale Elkartek Zaldiko Maldiko elkartea hautatu du aurten txapeldunari txapela jartzeko arduradun izateko. Nerea Bruñok aurkezpenean adierazi zuen moduan, "euskaldunentzat arnasmune izatea, euskal kulturarekin eta bertsolaritzarekin duten harreman estua eta bertsolaritza sustatzeko egindako ekinbide guztiengatik eskerrak eman nahi dizkiogu Zaldiko Maldiko elkarteari".

1981ean sortu zen elkartea, eta urte betera, lehen bertso eskola antolatu zuten Lontxo Aburuzarekin. Ordutik eta gaur egunera arte, bertsolaritzak presentzia izan du elkartean: bertso eskolak, Bardoetako saioak, eskolartekoak, Señora Sariketa eta beste hainbat bertso ekimenen aterpe baita. Erreferentziatzko gunea da Iruñeko euskaldunontzat, eta hala izan da ere Bertsozale Elkartearentzat.

Finaleko sarrerak, eskuragarri

Azaroaren 29rako sarrerak lortzeko www.bertsosarrerak.eus atarian duzue aukera, baita, egunean bertan txarteldegian ere.



MAIDER
ARREGI MARKULETA

ZALDIBIA. 2025-11-22

ZAPI JANZTEKO TXAPELDUNA

Doinua: Barrua ez det biluzten /
Brindo por las mujeres

Kontrol kamaren kontra
altxatu nahi dut ahotsa
bertsotan entzun bedi
borroka guztien hotsa
estufa jarri dute
urrun joan zedin hotza
bizkarra bezain bero
eramango dut bihotza.

Ahots baten sormen egonaldira joateko izen-ematea, zabalik

15-22 urteko gazteentzat egonaldia izango da Oiartzungo Arritxulo aterpean abenduaren 26tik 30era. Izen-ematea zabalik dago azaroaren 28ra arte.

XI. edizioa du Ahots Baten Sormen egonaldiak aurten. Euskal Herriko 15 eta 22 urte bitarteko gazteak Oiartzungo Arritxulo aterpean elkartuko dira, Gabonetako oporraldian, abenduaren 26tik 30era bitartean. Tartean izango dira Euskal Herriko Eskolarteko bertsolari txapelketako finalistak, besteak beste, finalista izateagatik jasotzen duten sarietako bat delako bertan elkartzea.

Egonaldiaren ezaugarrietako bat, euskal sortzaileekin elkartu ahal izatea da. Bost egunetan sormen adierazpide ezberdinak lantzeko aukera izango da, lagunarte giro beroan. Aurten

hurrengo euskal sortzaileak joango dira bisitan: Intza Alkain, Odei Barroso, Mari Luz Esteban, Amaia Elizagoien, Alaia Martin eta Eli Zaldúa. Begiralde taldean, berriz Oihana Arana, Aner Peritz, Iholdi Beristain eta Maiana Etxeberri egongo dira.

Izen-ematea, zabalik

Azaroaren 28ra arte dago izena-emateko aukera eta online egin behar da, www.euskaltzaindia.eus-en. Kuota 130 eurokoa da. Egonaldia Euskaltzaindiak antolatzen du, Bertsozale Elkartean eta Ikastolen Elkartean laguntzarekin.

Abenduaren 4an jokatu da **Bertsolari Gazteen BBK Sariketako finala**, Zornotzan

33 bertsolari gaztek parte hartu dute sariketan; finala Zelaieta Zentroan izango da 18:00etatik aurrera.

Azaroaren 3an hasi zen Bilbon aurtengo Bertsolari Gazteen BBK Sariketa. Lau kanporaketa eta finalaurreko bi jokatu dira, eta finala baino ez da falta sariketari amaiera emateko: abenduaren 4an ospatuko da Zornotzako Zelaieta Zentroan, 18:00etan. Sarrera doakoa da.

Sariketa honetan ohikoa den moduan, gazteek taldeka kantatu dute, bi multzotan: 2007an edo ostean jaioetakoak, eta 2000 eta 2006 bitartean jaioetakoak. Zortzi taldek eman zuten izena gaztetxotan eta bost taldek nagusietan, eta guztira, 33 bertsolarik parte hartu dute sariketan.

Finalera hurrengo bertsolariak iritsi dira: A taldekoak (2007an edo ostean jaioetakoak): Etazetak taldeko Emile Zabala, Ekhi Zuluaga eta Alaia Irurtia eta Oizpeko pantolluk taldeko Malen Ibarzabal, Haizea Rotaetxe eta Jon Abasolo. B taldekoak (2000 eta 2006 bitartean jaioetakoak) Zerobi taldeko Irune Basagoiti eta Maider Altuna eta Bizkaiko Kopla Gaztiekin taldeko Bittor Altube eta Janire Arrizabalaga.

Bizkaiko Bertsozale Elkartek bertsozale guztiak gonbidatu gura ditu finalaz gozatzeraz.



Gernika-Lumon jokatu da finalaurrekoan, gazteak kantuan. //XDZ

Beste pizkunde bat euskarari

Euskalgintzaren Kontseiluak herri gogoa pizteko ekitaldia antolatu du abenduaren 27rako, Bilbao Arenan; euskararen etorkizuna jokoan dagoen honetan, berriro ere euskaltzaletasuna lehen lerrora ekarri eta euskarari beste pizkunde bat emateko.

Euskalgintza Kontseiluko kide da Bertsozale Elkartea, eta hortaz, hainbat erronka konpartitu ditugu Kontseiluarekin. Horietako bat, euskara eta euskal hiztun komunitatea bizitzen ari den larrialdi linguistikoa, eta, horri lotuta, euskararen etorkizuna.

Ate joka daukagun beste erronka abenduaren 27an Bilbao Arenan egingo den ekitaldi jendetsua izango da. Ekitaldiarekin herri gogoa piztu nahi da, euskarak beste pizkunde bat bizi dezan. Besteak beste, Bilbao Arena betetzeko arrazoiak euskaltzaileon indar eta batasunaren erakustaldia egitea, euskal jendarte osoari mezu argi bat helaraztea eta hizkuntza-politiketan premiazkoa den jauzi sendoa bultzatzea dira.

17:00etan hasiko da ekitaldia eta antolatzaileek aurreratu dutenez kultur kutsukoa izango da, hitzartzeak eta musika uztartuko dituen. Bertsoak ere izango du lekua. Kantuan arituko dira Ane Labaka eta Sustrai Colina.

Ekitaldirako sarrera behar da eta www.pizkundera.eus atarian eskura daiteke 10 euroren truke.

Hamarkadatan euskararen taupadaren parte izan diren kantuar ekarriko dituzte Euskal Herri osoko eta beladunaldi ezberdinetako bederatzi musikariek: Amets Aranguren, Anari, "Benizze", Gontzal Mendibil, Gorka Urbizu, Joseba Tapia, "Flako Fonki", Maia Iribarne eta Miren Narbaiza.

Jasotako dirua osotasunean artisten lana ordaintzera eta ekitaldiaren gastuen zati bat estaltzera bideratuko da.

Arantzazutik, Bilbora

Azaroaren 6an Arantzazun (Oñati, Gipuzkoa) elkartu ziren euskalgintzako eragile nagusi eta erreferentziazko euskaltzaileak, Euskalgintzaren Kontseiluak deitutako agerraldian. Eragileen artean izan zen Bertsozale Elkartea ere, eta egindako adierazpenarekin bat egiten du: Euskaltzaileon garaia da.

Agerraldian, Euskalgintzaren Kontseiluak euskararen etorkizunak kezka sortzen duela adierazi zuen, eta badaudela horretarako arrazoiak, gero eta nabariagoak baitira duela mende erdi pasa hasitako pizkunde zikloa agortu delako zantzuak. Pizkunde berri baterako garaia da, beraz. Eta pizkunderako, norbanakoei egin diete, baina gogorarazi dute ezinbestekoak izango direla erabaki politikoak ere.

Bide horretan, abenduaren 27ko ekitaldiaren berri eman zen. Data garrantzitsua izango da euskaltzaileentzako: "euskaltzaileon komunitate sentimendua sendotu eta arnasa kolektibo bat izango da". Ekitaldiaren helburua ahalik eta euskaltzaile konprometitu gehien batzea eta euskaltzailetasunaren indarra erakustea dela gogorarazi dugu Kontseiluak.

Abenduaren 27an, euskaltzaile guztiak Bilbora!



Arantzazun egindako agerraldia; tartean, Bertsozale Elkarteko kideak. //Euskalgintzaren Kontseilua



Puntua jarrita

MADDI AGIRRE EPELDE

Haira, ez dakit zure galdera erantzuteko pertsona egokiena naizen, sarri egoten bainaiz nik neuk jositako eginbeharren eta egin nahi nituzkeen horien sarean korapilatuta. Txikitatik kolorez eta apuntez ziprztinduta eduki izan dut agenda, lehertzeaz, eta horrelakoetan ez da erraza izaten grabitate-zentroa bilatzea. Esan gabe doa, neguan zein udaberrian, egun askotan kendu izan didala bizitzak bertsoan aritzeko denbora.

Hala ere, bertsolaritza eta gainontzeko engaiamenduak uztartzeko ahalegin honetan, ohartu naiz gehienok estu eta larri gabiltzan arren, astez aste egiten dugula bertso-eskolarazaltzeko hautu kontzientea. Nire kasuan buruko makineria olioztatze modua ere bada, karrerako teknizismo matematikoak albo batera utzi eta hitzeko sormenari bide ematekoa. Gainera, nire irudipena soilik izango da agian, baina uste dut gaur egungo gizarte azeleratuan nahiko ekintza iraultzailea dela besterik gabe gai bat entzun eta horren inguruan bertsoz hausnartzeko tartea hartzea, gelditzea. Etengabeko produktibitatearen ideiatik apur bat aldentzen den jardura da, eta horrek zailtzen du, hein handi batean, dagokion lekua eskaini ahal izatea gure agenda gainkargatuetan.

Beraz, ez, ez nuke jakingo zehazki esaten nola uztartzen ditudan bertsolaritza eta gainontzeko gauza guztiak: batzuetan ez naiz uztartzeko gai eta puntu, lotsarik gabe onartzen dut. Dena dela, badakit on egiten didala, eta gehienetan hori besterik ez duzu behar klasetik irten eta etxerako bidea hartu beharrean, pausuak bertso-eskolaraz bideratzeko.

Naia, badakit zuk ere ez dituzula eginbehar gutxi izaten egunerokoan, eta esango nuke bertsoarentzako hutsune zuriak aurkitzea bereziki zaila dela zure agendan. Edonola ere, hortxe diharduzu, eta behar genuenean aurkitu izan dugu biok bertsoitarako batzeko tartea. Galdera logiko bezain konplexu bat hortaz: zer ematen dizu bertsolaritzak gainontzeko ezerk ematen ez dizuna?

Koplak

Egoitza aldatu dute Gipuzkoako eta Bertsularien Lagunak elkarrekin

Ikasturte hasieraz geroztik bulegoa beste leku batean dute Gipuzkoako eta Bertsularien Lagunak elkarteko kideek. Gipuzkoako Bertsozale Elkarteen egoitza berria Tolosan bertan dago, Nafarroa Etorbidea 6 helbidean, Galtzaundi Euskara Elkarteen lokana zenean. Aurrez zeukatena baino handiagoa da; lankide guztiak biltzeko bilerak gela du, lehen ez bezala. Horrez gain, herriaren erdialdean dago kokatuta. Bertsularien Lagunak elkartea Senperetik Uztaritzera leku aldatu da: Uztaritzeko Mailarena etxea 11n dago kokatuta. Uztailan instalatu ziren egoitzan eta Xilaba bukatutakoan inaugurazio jaia egiteko asmoa daukate.

Poto-Finixa



Nafarroako Bertso Negulekuetan izena emateko aukera ireki da

Nafarroako Bertso Eskoletako haur zein gazteek egonaldia egingo dute 2025eko abenduan, azken urteetako ohiturari eutsiz. Aurten, 29tik 30ra elkartuko dira, Lehen Hezkuntzako ikasleak Arantzan eta LH6 eta DBHko ikasleak Legasan. Nafarroako Bertsozale Elkarrekin egitarau oparoa antolatu du haien artean. Izen-ematea Internet bidez egingo da, www.bertsozale.eus atarian dagoen formularioa beteta, eta epea abenduaren 5era bitarte egonen da zabalik.

